



Gorka ETXEBERRIA DUEÑAS
Historialaria

Netflixen ez dago gladiatorerik

Noizean behin Netflixi trufa egiten dioten meak iristen zaizkit. Nik neuk, egia esan, gu-txi dut esateko plataforma horri buruz, zinema aldetik nahiko pijoa izanik, zuri-beltzeko zinemara eta zinema “alternatiboagora” jo-tzen baitut. Egia, pentsa daiteke, beti haien buruaz ari diren zinemagile horietara, ni eta nire niari bu-ruz itzulipurdika etengabeko elkarriketetan diren pertso-naia horietara, kamera joko kontenplatiboetara... Baina bueno, zer egingo diogu, hori da etxean jaso dudana zinema kultura eta, zorionez edo zoritxarrez, zinema “komertziala” arrotzagoa egiten zait.

Zertara nindoan? Ah, bai, Netflix! Plataforma horri buruz-ko mezuak jaso baino, zehatzago, gizonak bidaltzen dizkida-te. Zein barregarria Netflix! Film guztietan ageri da emaku-me bat protagonisten artean, homosexualen bat, azal zuria ez duen norbait... Joe! Gaur egungo zinema eta serie horiek! Gainera, pertsona enpatikotzat ditudanek bidali dizkidan maiz meme eta txiste horiek. Nolako izango litzake xake taula Netflixen serie batean? Dena kolorinetakoa! Kar, kar, kar... Nolakoak izango lirateke dortoka ninjak? Bi neska, bel-tza eta gurpildun aulkian doana!! Kar, kar, kar...

Pentsarazten didana da, baina jende hau ez da arrandegi-ra jaisten? Ez al dute ikusten lanera bidean doazenean, gur-pildun aulkian doana, zu eta biok baino ilunagoa den pertsona edo, guk ja-kin zein ez, mutilak zein neskak gustuko dituen? Supermerkatura bidean pertsona guztiak Martin Scorseseren film bateko gi-zonak balira bezala ikusten al dituzte?

Agian, gertatzen dena da garai bateko zineman eta ohiko serieetan gizon zu-riak bakarrik agertzen zire-la? Neskak agertzekotan, salbuespenak salbuespen, bikote, emazte ala alaba gi-sa edo erabat “gizonduta”? Xena, printzesa gerlaria; Penny, Sheldonen laguna, maskulinitate-feminitate rolak aldatuta; Sole, “7 Vi-

das”-ekoa, belarrondokoak ematen zituen... Hau da, behar-bada ez dute argi normalaren eta normatiboaren arteko al-dea. Denok ez gara Texaseko Walker, Colombo, House dok-torea edo Peter Griffin. Gurera ekarrita, nire blokeko bizilagunen artean ez dago Son Gokurik edo Vegetarik. Ha-tori ninja ere ez da gure auzoko heroia, zoritxarrez.

Gehien ikusten den zinema eta serieak (eta zinema alter-natiboaren zati handiena ere) gizon zuri normatiboek hege-monizatuta egon da. Baina hori ez da normala, hori ez da gi-zarteko errealitatea. Gizarteko errealitatea pantailan ikustea arraroa egiten zaizula? Ongi etorri mundura.

Gogoratu dut, maskulinitatearen antsietate horri lotuta, duela hilabete batzuk bolo-bolo ibili zela gizonak erromatar inperioan pentsatzen dutela guk uste baino maizago. Ho-rretan ere, onartu behar dut, Asterix eta Obelixen komikiak irakurrita nik Julio Zesar izan nahi nuela... Enpin. Gladiator, Spartaco... Soldaduek eta gladiatorrek populatutako inpe-rioia imajinatzen dute, zeinetan emakumeak haiekin maite-minduta eta etxean egongo baitziren, gizonak gizonen gau-zak egiten zituzten bitartean. Baina, ene bada, hori imajinatzen duten gizonak ziurrenik esklabo, barbaro edo putetxeetako langile izango ziren benetan existitu zen erro-matar inperioan, gerrako elbarri edo txiro baztertu bestela. Hori bai desilusia! •



Netflixen ikus daitekeen «Sex Education» telesailko afixa. NETFLIX